





Kuartangoko estazio megalitiko
Estación megalítica de Kuartango



GURPIDE H/S



EGITURA MEGALITIKO MOTA


Oso desitxuratuta dagoen trikuharria, iparraldeko lauzazko horma eta beste batzuen hondarrak bakarrik kontserbatzen dituena: antzinako argazki-dokumentuetan, gaur desagertu diren lauz handiak ikusten dira. Dagoen egoeran zaila da deskribatzea: ganbara eta korridorea sumatzen dira; 7 metro luze baino gehiago eta zurrerik 2 metro zabal baino gehiago ziren, baina horiek dira gaur egun neur daitezkeen dimentsioak. Tumuluaren erdia kontserbatzen da; 14 bider 20 metro luze-zabal eta 3,3 metro garai da.

AURKIKUNTZAREN URTEA

1871, Becerro de Bengoa eta Manteli

INDUSKETAREN URTEA

1892, Apraiz. XX. mendearen hasiera, aita pauldarak. 1955, Barandiaran eta Fernández Medrano. 2022, Alday eta Ondare Babesa. Dozenaka ehorzketa berreskuratzen ziren, objektu litikoen bilduma handi batekin (xafla handiak, gezi-puntak), zeramika-zatiekin eta elementu apaingarriekin batera, zeinetatik asko material exotikoz eginda baitaude.



TIPO DE ESTRUCTURA MEGALÍTICA


Dolmen muy desfigurado que solo conserva la pared de losas del norte y restos de otras: en documentos fotográficos antiguos se observan grandes losas hoy desaparecidas. En su estado es complicada su descripción: se adivinan la cámara y el corredor, que superaban los 7 metros de longitud, y, seguramente, los 2 de anchura que hoy pueden medirse. Del túmulo se conserva su mitad, de 14 por 20 metros y 3,3 de altura.

AÑO DEL DESCUBRIMIENTO

1871 por Becerro de Bengoa y Manteli

AÑO DE LA EXCAVACIÓN

1892 por Apráiz. Principios del siglo XX por Padres Paules. 1955 por Barandiarán y Fernández Medrano. 2022 por Alday y Ondare Babesa. Se rescataron varias decenas de enterramientos con una amplia colección de objetos líticos (grandes láminas, puntas de flecha), fragmentos cerámicos y una serie de elementos de adorno, muchos en materiales exóticos.



Hileta-erritual bateko eszena
Escena de ritual funerario


Mundu globalizatua: hilobiratze-hatuak

Gurrpide Hegoa trikuharria da, Kuartangon daudenen artean, pertsonekin batera lurperatutako material arkeologiko gehien eman duena. Hatua osagai hauek eratuak dago:

- Silexezko xaflak eta gezi-puntak, urrutitik ekarriak (Ebroko silex ebaforitikoak, 100 km baino gehiagora sortua) eta pertsona espezializatuek zizelkatuak.
- Norbera apaintzeko elementuak, zeinen aleak askotariko lehengaiz eginak baitira:
 - » Ehun inguru hezurrezkoak dira: uztaitxo finak eta alakatuak dauzkate eta batzuek okre azurnak dauzkate. Horrelakoak Sorginaren Txabolan, Arratiandi haizuloan eta Sedanoko trikuharri-estazioan (Burgos) ere aurkitu dira.
 - » Beste batzuk azabatzezkoak edo lignitozkoak dira. Material hori ez da bereziki ohikoa, baina Gurrpide Hegoan bihi handiak egiteko erabili zen, batzuetan ildaska dekoratiboekin.
 - » Batzuk mineral gogor exotikoz egin zituzten eta kolorazio berdexkek atentzioa ematen dute.

Baliteke aleetako batzuk Gaváko meategietakoak izatea (hots, Bartzelonakoak, zeina gutxi gorabehera 600 km-ra dagoen). Horrek esan nahiko luke gizarteotan bazeudela apaingarriak egin eta oso distantzia luzeetara, zurrerik beste produktu batzuen truke, banatzen zituzten pertsonak.

Beharbada Gurrpide Hegoan balio handiko hiru lepoko baino ez ziren egon, han ehortzitateko dozenaka gizabanakoetako gutxi batzuekin lotuta. Pertsona gutxi batzuek material baliotsuenak pilatzeak adierazten digu gizarte gero eta konplexuagoa zela eta elite pribilegiatuak bide zeudela.



Trikuharri baten barrualdea, zenbait gorpu eta haien ondoan jarritako opariak
Interior de un dolmen con varios cuerpos y ofrendas depositadas junto a ellos



Silexezko xafla eta material bereko gezi-puntak. Lignitozko eta hezurrezko lepoko-aleak. Gurrpide Hegoan aurkitutako materialok Bibat Arabako Arkeologia Museoaan ikus daitezke.

Lámina de sílex y puntas de flecha, también en este material.

Cuentas de collar de lignito y hueso. Estos materiales hallados en Gurrpide sur se pueden ver en el Bibat, Museo de Arqueología de Álava.

Un mundo globalizado: el ajuar funerario

El dolmen de Gurrpide sur es, de los de Kuartango, el que más material arqueológico ha proporcionado acompañando a las personas enterradas. Este ajuar está formado por:

- Láminas y puntas de flecha de sílex, de procedencias lejanas (sílex evaporítico del Ebro, cuyo origen se sitúa a más de 100 km) y que requerían la presencia de personas especializadas en su talla.
- Elementos para el adorno personal, cuyas cuentas fueron realizadas con distintas materias primas:
 - » En torno a un centenar se fabricaron sobre hueso: son finos aretes biselados, varios con restos de ocre y que también se han encontrado en el dolmen de La Chabola de la Hechicera, en la cueva de Arratiandi y en la estación dolménica de Sedano (esta última, en Burgos).
 - » Otras son de azabache/lignito, un material no especialmente frecuente, con el que en Gurrpide sur se confeccionaron cuentas de grandes dimensiones, a veces con estrías decorativas.
 - » Varias se fabricaron sobre minerales duros exóticos, llamando la atención las de coloraciones verdosas.

Es posible que algunas de estas cuentas procedan de las minas de Gavá (Barcelona, a unos 600 km), señalando que en estas sociedades había personas que elaboraban y distribuían adornos a muy largas distancias a cambio, seguramente, de otros productos.

Quizá en Gurrpide sur solo hubo tres collares de gran valor, asociados a unos pocos individuos de las varias decenas allí inhumados. Que unas pocas personas acumularan los materiales más valiosos nos revela una sociedad cada vez más compleja, en la que habría élites privilegiadas.

KUARTANGO



KUARTANGO
UDALA·AYUNTAMIENTO



araba álava
foru aldundia diputación foral

Gurrpide H/S



[eu]



[es]